Hazi txiki bat haizeak eraman du bere ufadetan barrena. Haizeak fiu-fiu dihardu etenik gabe. Hazia hor dabil zeruan dantzan gora, behera, eskuin, ezker... Fiu-fiu eta fiu- fiu, badirudi eroriko dela lautada batean, badoa, badoa… Baina ez! Berriz ere gora, behera, eskuin, ezker, zurrunbilo eten gabe batean, dantza amaigabe batean.

Halako batean erori da errekara, Euskal herriko erreka batera, urak darama errekaren ibilbidea arakatuz. Ibai batera iritsi da dagoeneko. Ibaiak gur-gur hotsa egiten du. Bidasoa, Errobi, Oria... Edozein izan daiteke, Euskal Herria zeharkatzen duen edozein, baina horrek ez du axola.

Haizearekin bezala orain ibaian barna doa hazia, zurrubilo eta ur-jauzi txikiak gaindituz. Galdu egingo ote da? Edo, ur emari horretan bere indar eta berezitasunaren laguntzaz bizirautea lortuko ahal du? Ez dakigu zer gertatuko den, baina alferrik da dilema horretan murgiltzea.

Uste dut denok konturatu garela hazia lekuz kanpo sentitzen dela edo dagoela. Bere lekua aurkitu behar du, ingurune egoki bat bertan bizi eta bere sustraiak bota ahal izateko; biziraun nahi badu behintzat.

Gutxien esperotakoan hegazti batek bere moko zorrotzarekin harrapatu du. Enara bat da, txori honek intsektuak jatea da ohikoena. Batez ere, eltxoak eta euliak, baina gaurkoan ez da zorterik izan. Animali hau bere bizirauteko janariaren bila zebilela, hazia harrapatu du. Basoko zuhaitzen batean egongo zen erne, bere zentzumen guztiak prest, zerbait aurkitzeko adi.

Bere habiara eraman du eta bertan hiruzpalau kume daude elkarri mokoka ia zenek lortu janari gehiago. Konturatu gabe Euskal Herriaren bihotzera eraman du hazia enarak, Sakanako eskualdera, Beriain mendira joateko bidetik gertu. Euskal Herriaren bihotza zonalde liluragarria da, zelai berdeez gain, baso zabalak eta mendilerro paregabeak ditu. Agian hazia ernaltzeko leku egokia izan liteke?

Badirudi hazia zorteko dagoela gaurkoan, ez aldiz enara. Hutsegite baten ondorioz mokadua lurrera jausi zaio eta bere otordua izango zena galdu du bidean. Haziak gustuko lurra aurkitu duela dirudi, eroso dagoela paraje honetan. Denboraren poderioz helduz doa lurrean barna. Sustraiak bota ditu Euskal Herrian barrena poliki-poliki, zonalde bakoitzeko hitz, esamolde edo berezitasunak sortuz eta jasoaz. Horrelako gauzek denbora daramate, bide luzea egin behar